BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3216

EBAZPENA, 2013ko ekainaren 17koa, Hizkuntza Politikarako sailburuordearena, 2013. urtean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzen balorazio-batzordea osatzen duena.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak, 2013ko maiatzaren 2an, 2013. urtean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntzak emateko modua arautu zuen agindu baten bidez (Hedabideak deialdia). Agindu hori, 2013ko maiatzaren 6an argitaratu zen EHAAn.

Aurkeztutako eskabideak aztertzeko eta ebaluatzeko osatuko den balorazio-batzordearen osaera era honetan arautzen du aipatutako aginduaren 16. artikuluak:

16. artikulua.– Balorazio-batzordea.

(...)

2.– Balorazio-batzordea honako pertsona hauek osatuko dute:

a) Euskara Sustatzeko zuzendaria edo haren ordezkoa, batzordearen buru izango dena.

b) Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzako Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria edo haren ordezkoa.

c) Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kabinetearen zuzendaria edo haren ordezkoa.

d) Foru Administrazioek izendatutako hizkuntza politikaren ardura duen saileko teknikari bat, gutxieneko maila zerbitzu buruarena delarik, edo haren ordezkoa.

e) Euskararen Aholku Batzordeko kide bat.

f) Euskarazko hedabideen arloko aditu bat.

g) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna edo haren ordezkoa.

h) Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikari bat, Hizkuntza Politikarako sailburuordeak izendatutakoa. Horrek idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Ondorioz, hauxe

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2013. urtean euskarazko hedabideak sendotu, garatu eta normalizatzeko diru-laguntza deialdiaren balorazio-batzordeko kideen izendapena egitea.

Bigarrena.– Honako hauek dira 2013ko maiatzaren 2ko Aginduaren 16.2 xedapenaren arabera izendatutako balorazio-batzordeko kideak:

a) Jokin Azkue Arrastoa, Euskara Sustatzeko zuzendaria, batzordearen buru izango dena. Ordezkoa, Gotzon Lobera Revilla, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria.

b) Jorge Giménez Bech, Hizkuntza Ikerketa eta Koordinaziorako zuzendaria. Ordezkoa, Joseba Erkizia Itoitz, HABEko zuzendari nagusia.

c) José Manuel Bujanda Arizmendi, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko Kabinetearen zuzendaria. Ordezkoa, Mireia Elkoroiribe Zenikaonandia, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko aholkularia.

d) Gotzon Egia Goienetxea, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Euskara Zerbitzuko burua. Ordezkoa, Joxean Amundarain Iturrioz, Gipuzkoako Foru Aldundiko Euskararen Normalkuntza Ataleko burua.

e) Elisabete Larrinaga Artetxe, Euskararen Aholku Batzordeko kidea.

f) Jose Inazio Basterretxea Polo, euskarazko hedabideen arloko aditua.

g) Edurne Basoa González, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Dokumentazio eta Informazio Zerbitzuaren arduraduna. Ordezkoa, Araceli Díaz de Lezana, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako Estandarizazio Zerbitzuaren arduraduna.

h) José Miguel Odriozola Mujika, Euskara Sustatzeko Zuzendaritzako teknikaria. Azken honek, idazkari-lanak egingo ditu eta hitza izango du, baina ez botorik.

Hirugarrena.– Zerbitzuen ondoriozko ordainketak.

Administraziotik kanpoko balorazio batzordeko kideek dietak edota konpentsazioak jasotzeko eskubidea izango dute organo horretan parte hartzeagatik izandako gastuengatik, indarrean dagoen araudiaren arabera. Ordaindu behar diren kopuruak kalkulatzeko oinarri gisa hartuko dira kalte-ordainei buruzko otsailaren 2ko 16/1993 Dekretuan ezarritako kopuruak.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Administrazio-bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita. Bestela, zuzen-zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute EAEko Auzitegi Nagusiko Administrazio Auzietarako Salan, bi hilabeteko epean, honako agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango du eragina.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko ekainaren 17a.

Hizkuntza Politikarako sailburuordea,
PATXI XABIER BAZTARRICA GALPARSORO.